



1. Hurrengo testuan agertzen diren energia formak ordenatu.

Energia mekanikoa

Bero energia

Argi energia

Energia kimikoa

Energia elektrikoak

Soinu energia

Oraindik gogoan dut nire urtebetetzerik onena, 10 urte bete nituenean. 9:00etan esnatu nintzen aita prestatzen ari zen txokolatedun opilen usainarekin, egunerako pilak kargatzeko modu ona! Gosaltzen amaitu genuenean, anaiak urtebetetze zoriontsuaren kanta jo zidan biolinarekin, asteak zeramatzen praktikatzen, eta primeran geratu zitzaion.

Nire aitona-amonak iritsi zirenean, paseatzera joan ginen, eta orduan nire sorpresa heldu zen, paseo bat globoan!

Oso dibertigarria izan zen, nahiz eta haize handia zebilen eta batzuetan beldur pixka bat ematen zidan.

Oso goian egin genuen hegan, eta, hainbeste eguzki zegoenez, hiri osoa argitzen zen, eta dena zehatz-mehatz ikusi ahal izan genuen.

Arratsaldean parkera joan ginen lehengusuekin, baina bat-batean eguna hondatu zen eta ekaitza etorri zen tximistekin eta trumoiekin.

Korrika joan ginen etxera, blai eginda iritsi ginen, eta amak tximinia piztu zuen, denok haren aurrean elkartu eta berotzeko.

- 1.
- 2.
- 3.
- 4.
- 5.
- 6.

2. Marrazki bakoitzaren azpian, aukeratu zer energia mota adierazten duen.

Argi energia

Soinu energia

Bero energia

Energia elektrikoak

Energia kimikoa

Energia mekanikoa







3. Aukeratu zer energia formara eraldatzen den energia adibide bakoitzean.

Bonbilla batera heltzen den energia elektrikoa **argi energia / energia mekaniko** bihurtzen da.

Autoetan erabiltzen den gasolinaren energia kimikoa **argi energia / energia mekaniko** bihurtzen da.

Haizagailu batera heltzen den energia elektrikoa **soinu energia / energia mekaniko** bihurtzen da.

Telebista batera heltzen den energia elektrikoa **soinu energia / energia mekaniko** bihurtzen da.

4. Aukeratu energia mota eta bete taula.

	Berriztagarria	Berriztaezina	Zertarako erabil daitekeen
Ikatz			
Haizearen energia			
Eguzki energia			
Energia hidraulikoa			
Gas naturala			
Petrolio			

5. Bilatu etxean sei energia mota eta aipatu zer energian eralda daitezke adibidean bezala.

Hozkailua irekitzen dugunean (energia elektrikoa) argia ikusten dugu
(argi energia)